



“Salzburgorako bidaia” lehiaketaren oinarri arautzaileak

- 1. Lehiaketaren esparrua eta prozedura.** Real Sociedad de Fútbol SADek (aurrerantzean “Reala”) duen produktu ofiziala da lehiaketa hau. Realaren webgune ofizialaren bitartez parte hartzen da. Oinarri arautzaile hauetako baldintzen arabera baino ezingo da erabili, eta zerbitzuari zuzenean lotuta dauden arauak kontuan hartuta.
- 2. Lehiaketaren xedea.** Ondoren azalduko den lehiaketa www.realsociedad.eus web orrian (Nire Reala) jada lotuta dauden **abonatu** guztien artean (aurrerantzean “Bazkideak”) eta gaurtik, urtarrilak 31, otsailaren 7ra arte lotzen direnen artean zozketatuko da. Zozketa datorren otsailaren 8an egingo da, 12:00etan (Sortea2 aplikazioa erabiliko da zozketarako).
- 3. Bozketa.** Bidaia bat da saria (bazkidearentzat eta laguntzailearentzat). Salzburgora, Austriara, bidaiatuko da, bertan jolastuko den UEFA EUROPA LEAGUEKO final hamaseirenetarako kanporaketaren bueltako partida dela eta. Hegazkinean Taldearekin joango da, eta lekualdaketak eta FC SALZBURGO taldearen aurkako partidarako sarrera ere sariaren barruan sartzen dira. Guztira horrelako hiru sari zozketatuko dira baldintza hauetakoren bat betetzen dituzten bazkideen artean:
 - 16-17 denboraldiko partiden %100era (Liga eta Kopa) joan ziren bazkideak.
 - 2017ko irailaren 8tik eta urtearen lehen itxierara arte, hau da, 2018ko urtarrilaren 7ra arte Realzale Programan puntuak sortu dituzten bazkideak.
 - 2017ko otsailaren 2tik 2018ko otsailaren 7ra bitartean www.realsociedad.eus webgunean erregistratu eta lotu diren bazkideak.Zozketako partizipazio kopurua handiagoa edo txikiagoa izango da baldintzen kopuruaren arabera; adibidez, bazkide batek baldintza bakar bat betetzen badu, partizipazio batekin sartuko da zozketan; bi baldintza betetzen baditu, bi partizipazioekin, eta horrela hurrenez hurren, partizipazio kopururik handiena hiru izanda.
- 4. Sari banaketa.** Realak zuzenean emango dio saria irabazleari. Kluba zuzenean jarriko da harremanetan sarituarekin, webgunean erregistratzean eman zuen telefonoaren edo posta elektronikoaren bitartez. Webgunean izena ematean, irabazleari izena, NAN, jaiotze data eta telefonoa eskatuko zaizkio.
- 5. Kanpoan geratzea.** Oinarriak betetzen ez dituzten parte hartzaileak lehiaketatik kanpo geratuko dira, baita promozio honen erabilera gehiegizkoa edo iruzurrezkoa egiten dutenak ere. Realak beretzat gordetzen du, alde bakarretik, erabiltzaile bat blokeatzeko eta Hitzarmen honi berehala amaiera emateko eskubidea. Erregistro bakarra zenbatuko da parte hartzen duen pertsona fisiko bakoitzeko.



- 6. Baldintza gehigarriak.** Realak beretzat gordetzen du promozioaren Oinarriak aldatzeko eskubidea, partzialki edo osoki, edozein unetan. Halaber, beretzat gordetzen du saria bertan behera uzteko, hutsik uzteko edo deuseztatzeko eskubidea, baldin eta promozioan irregulartasunik antzematen bada edo Oinarri hauetan jasotzen den bezala gauzatzea galarazten duten kausa justu edo halabeharrezko motiboak gertatzen badira. Realak beretzat gordetzen du edozein erabiltzailearen parte hartzea deuseztatzeko eskubidea, baldin eta bere iritziz hura iruzur eginez ari bada lehiaketan parte hartzen, edo gainerako lehiakideekiko bidegabe jokatzeko ari dela baderitza. Realak beretzat gordetzen du promozioa bertan behera uzteko eskubidea, behin betiko edo aldi baterako, bi kasuetan halabeharrezko arrazoiengatik, ustekabeko edo aurreikusitako ezinezko gertaerengatik edo iruzurrerengatik. Lehiaketan parte hartzeak berak esan nahi du erabiltzaileak honako oinarri arautzaile hauek guztiak onartzen dituela.
- 7. Datuen babesa.** Erabiltzaileak aplikazioan emandako datu pertsonalak fitxategi batean jasoko dira konfidentzialki: fitxategiaren erantzulea Real Sociedad de Fútbol SAD da, eta xede bakarra izango da posta elektronikoz edo SMS bidez Realak edo bere Fundazioek antolatzen dituzten jardueren eta kanpainen gaineko publizitatea eta informazioa bidaltzea. Promozioan parte hartzeak Oinarri hauek berariaz eta baldintzarik gabe onartzen direla esan nahi du. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan, abenduaren 13koan, xedatutakoaren arabera, zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurkatzeko eskubideaz baliatzeko, idatziz jo behar duzu Real Sociedad de Fútbol SADen egoitza sozialera: Anoeta pasealekua, 1, 20014 Donostia-San Sebastian, Gipuzkoa, Espainia.